

**EUSKADI LITERATURA SARIAK 2023**
PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA 2023

2023-11-15 Getxo 15-11-2023

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Herri agintari eta ordezkariok, Epaimahaikideok, Sarituok, Idazleok, Literaturaren munduko eragileok, arratsalde on!

Euskadi Literatura Sarien ospakizunak literaturaren festa dakarkigu.

Literaturaren beharra, garrantzia eta plazera aldarrikatzeko aukera eskaini ohi digu Sariak. Aukera ezin hobea idazleei eta argitaratzaileei esker ona adierazteko.

Mintzoak egiten gaituela gizaki esaten dute jakintsuek.

Hitzez adierazten ditugu gizakiok gure premiak; hitzez, gure nahiak, maitasunak eta gorrotoak, gure beldurrak eta esperantzak. Bizi duguna hitzez kontatzen diogu geure buruari eta lagun hurkoari. Bizi dezakeguna, baita ere, bizi nahi ez genukeena bezainbat.

Errealitatea kontatzen diogu elkarri eta ametsak baita ere: fikzioak.

Fikzioak asmatzen dituzten izaki bakarrak omen gara. Mintzoaren gaitasuna dugulako. Hitzaren ordezkari buila, liskarra, garrasia, biolentzia neurritz kanpo nagusitzen ari zaizkigun garaiotan, bereziki garrantzitsua da hitzaren balioa aldarrikatzea.

Gazte-gaztetatik dugu literatura beharrezkoa.

Gaztaroan, gizakiaren asmoek, beldurrek eta ilusioek forma hartzen duten garai horietan, bereziki garrantzitsua da literatura.

Eskerrik asko, Patxi Zubizarreta, gazteentzat “*Zerria*” idazteagatik. Zurea bezalako liburu ederrak dira irakurlearen aurreneko etxeak.

Zahartzaroa datorrenean ere, fikzioak behar izaten ditugu, iraganean bizi izandakoari bezainbat, geratzen zaigun aldiari forma emateko. Eskerrik asko Arantxa Urretabizkaia, “*Azken Etxea*” idazteagatik.

Eskerrik asko Alejandro Morellón por ofrecernos “*El peor escenario posible*”, una obra sobre el final del ancho mundo y de nuestro pequeño mundo, desde el mejor punto de vista posible: el humor.

Marina eta Joxe Mari Berasategi, Abdulrazak Gurnah idazle handia euskarara ekarri duzue. Hark “*Paradisu*”a deitu zuena, Afrikako lautadetatik Euskal Herrira ekarri duzue. Eskerrik asko! Gure mundua zabalagoa da orain, baita aberatsagoa ere.

Literaturak aberatsago egiten gaituela ez da, tamalez, begi-bistakoa. Literaturaren ziztada aurkitu egin behar du irakurleak. Deskubrimendu hori ez da beti ematen eta ez da erraz ematen. Baina gertatzen da eta irakaslea da hor ere lagun, bidaide. Gu guztioi literaturaz maitemintzeko mila eta bat arrazoi eman dizkiguzulako, eskerrik asko Miren Billalabeitia, “*Norberak maite duenaz*” idazteagatik.

Nork, euskaldunon artean ez du maite izan Mikel Laboa. Gutxi, ordea, transmititu digute gure bizitzaren soinu-bandan dagoen altxor hori Joseba Larratxek eta bere lankideek bezain ondo. Eskerrik asko “*Ni ez naiz Mikel Laboa*” marrazteagatik.

Elkano aitzakia hartuta, bizikletaz txangoa egiten duen idazle-kazetariak, egungo Euskal Herriaren mapa berritzailea eraiki du. Eskerrik asko Ander Izagirre, gu ere bailaraz bailara eramán gaituzulako “*Vuelta al País de Elkano*”-rekin.

Eskerrik beroena guztioi. Zorionak.

Muestro nuestro agradecimiento y reconocimiento a todas y todos los premiados. También a las editoriales que os acompañan, a las librerías y bibliotecas que recomiendan y dan a conocer vuestras obras, a los medios de comunicación que contribuyen a la difusión de la literatura y la cultura.

Expreso nuestro agradecimiento a las y los primeros lectores de estas obras, las y los miembros del jurado. Agradecemos vuestro compromiso y ejemplo, que compartís con pasión. Cada lectura conduce a una nueva lectura y vuestro trabajo alienta esa espiral virtuosa.

Euskadi guztiaren izenean adierazten dizuet, beraz, guztioi, gure esker ona. Zorionak eta eskerrik asko